

2021eko URRIAREN 7ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-10-07.
Hasiera ordua: 17:40.
Bilkura mota: berezia, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Julen Errandonea Martin
Estibaliz Pinacho Olaciregui
José Esteban Aguirre Zubietta
Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

Raquel Quiroga Tapia
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Germán Castillo Lazcanotegui

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

José Antonio Oyarzabal Iribas
Josu Irtzoki Agirre

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/09/15). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

2. TOKIKO MERKATARITZA-SOZIJETATE BAT SORTZEA, %100EKO UDAL KAPITALA IZANGO DUENA, BERAKO KIROL INSTALAZIOEN ZERBITZUA ZUZENEAN KUDEATZEKO. JUSTIFIKAZIO-MEMORIA. HASIERAKO ONARPENA.

Ikusirik:

- Eduki ekonomikoa duen Berako kirol instalazioen zerbitzu publikoa tokiko merkataritza-sozietate bidez zuzenean kudeatzeko modua onartzeko espedientea, 2021eko irailaren 7ko Alkatetzaren Probidentziaren bidez hasitakoa.

- Udalak 2021eko irailaren 15ean egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Azterketa Batzordea sortu zela, justifikazio-memoria egiteko.

- Azterketa Batzordeak, 2021eko urriaren 4an egindako bileran, memoria onartu zuela, aukeratutako kudeaketa modua justifikatzeko egin zena, eta memoria horrek jasotzen duela haren ezarpenaren eta funtzionamenduaren alderdi juridiko, tekniko eta ekonomiko-finantzarioen garapena. Egiaztatu da iraunkorragoa eta efizienteagoa dela kudeaketa kapital publikoko merkataritza-sozietate baten bitartez egitea, Udalak berak egitea baino. Sozietatearen estatutuen proiektuaren zirriborroa erantsi da ere.

Kontuan hartuta espedienteak bete egin dituela Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2 f) eta 85.2 artikuluetan ezarritako izapideak, eztabaidatu ondoren,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasiara batean onestea kapital osoa publikoa duen merkataritza-sozietate bat sortzeko memoria eta estatutuen proiektua. Horretarako izendatutako Azterketa Batzordeak idatzi ditu horiek.

2. Memoria eta estatutuen proiektua jendaurrean jartzea 30 egun naturaleko epean; epe horretan, alegazioak eta oharrak egin ahal izango dira.

3. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Beste aztergairik izan gabe, 18:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elempuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.